



AGINDUA 2024ko uztailaren 18koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, zeinaren bidez iraungitzat deklaratzeko baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra Horacio Luis Rivero López jaunaren abintestato jaraunsle deklaratzeko prozedura.

ORDEN, de 18 de julio de 2024, del Consejero de Hacienda y Finanzas, por la que se declara la caducidad del procedimiento para la declaración de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi como heredera abintestato de don Horacio Luis Rivero López.

Ekonomia eta Ogasun sailburuaren 2021eko ekainaren 14ko Aginduen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren alde Horacio Luis Rivero López jaunaren abintestato-jaraunsleak deklaratzeko prozedura hastea erabaki zen.

Por Orden de 14 de junio de 2021 del Consejo de Economía y Hacienda se acordó la incoación del procedimiento para la declaración de herederos abintestato a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi de don Horacio Luis Rivero López.

Agindu hori 2021eko ekainaren 28an argitaratu zen "Estatuko Aldizkari Ofizialean", 2021eko ekainaren 23an "Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian" eta 2021eko ekainaren 25ean "Bizkaiko Aldizkari Ofizialean". Era berean, hasteko aginduen kopia bat Sestaoko Udalari bidali zitzaion, hura baita jaraunspenaren kausatzailearen azken bizilekua.

La citada orden fue publicada el 28 de junio de 2021 en el "Boletín Oficial del Estado", el 23 de junio de 2021 en el "Boletín Oficial del País Vasco" y el 25 de Junio de 2021 en el "Boletín Oficial de Bizkaia". Del mismo modo una copia de la Orden de inicio fue remitida al Ayuntamiento de Sestao, última residencia de la persona causante de la herencia.

Euskadiko Ondarearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 3ko 143/2023 Dekretuak 38. artikuluan ezartzen duenez, ondarearen arloan eskumena duen sailburuaren agindu bidez ebatziko da prozedura, hasteko agindua eman eta urtebeteko epean eman beharko da agindu hori.

El Decreto 143/2023, de 3 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento del Patrimonio de Euskadi, establece en su artículo 38 que la resolución del procedimiento se realizará mediante orden del consejero o de la consejera del departamento competente en materia de Patrimonio que deberá dictarse en el plazo de un año desde la fecha en que se dictó la orden de inicio.

Ondorioz, prozedura aipatutako epean ebatzi ez denez, iraungitzat jo behar da.

En consecuencia, no habiéndose resuelto el procedimiento en el plazo



señalado procede la declaración de su caducidad.

Ogasun eta Finantzetako sailburuari dagokio prozedura hau agindu bidez ebaztea. Hala ezarrita dago: Euskadiko Ondarearen Erregelamendua onartzen duen urriaren 3ko 143/2023 Dekretuaren 38. artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 8.1.o) artikulua; eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 3.2 artikulua.

Corresponde al Consejero de Hacienda y Finanzas dictar, mediante Orden, la resolución del presente procedimiento, en virtud de lo previsto en el artículo 38 del Decreto 143/2023, de 3 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento del Patrimonio de Euskadi; el artículo 8.1.o) del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos; y el artículo 3.2 del Decreto 69/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía y Hacienda.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoa Horacio Luis Rivero López jaunaren jaraunspenaren abintestato-jaraunse deklaratzeko prozedura iraungitzat jotzea, prozedura ebazteko urtebeteko epea amaitu delako. Prozedura berri bati hasiera eman ahal izango zaio berriro, iraungidura gertatu izan ez balitz edukia mantenduko zatekeen egintzak eta dokumentuak ere gehituko dira.

Bigarrena.- Iraungitzea deklaratzeko agindu honen iragarkia “Estatuko Aldizkari Ofizialean”, “Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian”, “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean”, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eta Sestaoko Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.

RESUELVO:

Primero- Declarar la caducidad del procedimiento para la declaración de la Comunidad Autónoma de Euskadi como heredera abintestato de las herencia de don Horacio Luis Rivero López, por haber transcurrido el plazo de un año para la resolución del procedimiento, pudiendo volver a incoar un nuevo procedimiento incorporándose los actos y documentos cuyo contenido se hubiera mantenido igual de no haberse producido la caducidad.

Segundo- Publicar el anuncio de la presente Orden de declaración de caducidad en el “Boletín Oficial del Estado”, en el “Boletín Oficial del País Vasco”, en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, además de en la sede electrónica del gobierno Vasco, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de

Sestao.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Ogasun eta Finantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá ser recurrida por infracción de las normas de competencia y procedimiento mediante recurso potestativo de reposición ante este Consejero de Hacienda y Finanzas en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko Uztailaren 18a
En Vitoria-Gasteiz, a 18 de julio de 2024

Ogasun eta Finantza sailburua
El Consejero de Hacienda y Finanzas

NOËL D'ANJOU OLAIZOLA